▸**ZARAUTZ**/SANPELAIOAK'98



ZAGAk deituta danborra joaz aterako dira gazteak.

Andoni CANELLADA

# ZAGA, jaiak eta errebindikazioa uztartuz

■ Herri afaria eta Gazteen Danborrada egin zuen atzo Gazte Asanbladak. ■ Gaztelekua dute batik bat gogoan egunotan ere.

Urtero bezala, Zarauzko Gazte Asanbladak jaiak eta errebindikazioa uztartu nahi izan ditu Sanpelaio hauetan ere eta, gaztelekua gogoan, zenbait ekitaldi antolatu ditu egunotan. Duela hiru urtetik hona egin duen moduan, atzo iluntzean herri afaria antolatu zuen Merkatu Plazan.

Gari BERASALUZE

ZAGAren esanean «afaria, azken batean, gero egiten den Gazteen Danborradara jendea ager dadin egiten dugu. Hau guztia, egia esateko, helburu jakinik gabe sortu zen. Haurrek eta helduek bezala, gazteok ere gure danborrada izan nahi genuen eta horregatik hasi ginen nolabait. Gero, horrek gure aldarrikapenekin bat egiteko balio digu eta aukera hori baliatzen dugu, noski. Aurten, esaterako, ezin dugu ahaztu udazkenean Gaztelekua zabalduko dela eta horren aurrean Zarauzko gazteok badugula zer esanik».

Gaztelekuarekiko errebindikazioa nabarmendu zuen ZAGAk antolatutako atzoko afarian eta danborradan. Hauek ordea, gazte asanbladak uda honetarako prestatu duen plangintzaren lehen urratsak besterik ez ziren. Izan ere, ZAGAko kideek adierazi digutenez, «oso garrantzitsua iruditzen zaigu Gaztelekuarekin zer gertatzen ari den argi eta garbi jakitea herritarrek eta, batez ere, gazteek. Honela, hasiera batean Sanpelaioetarako ateratzeko asmoa bagenuen ere, Amabirjinetarako niki bat aterako dugu merke-merke, ahalik eta jende gehienak jantzi dezan festetan. Gure aldarrikapenaren berri eman eta hau zabaltzeaz gainera, Zarautzen koadrilen artean dagoen zatiketa ere apurtu nahi dugu honela. Hainbat eta hainbat herritan guztiak blusa berdinarekin ateratzen dira festara. Gurean, ordea, koadrila bakoitzak berea du eta gainerako herritarrek ez dute lekurik. Hau dela eta, guztiek blusa berdina eramatea ez zaigu ideia txarra iruditzen. Nolabait, ZAGA koadrila handi bat izatea nahi genuke».

## Pegatina

Herriari begira, Sanpelaio hauetan ZAGAk bere errebindikazioa kaleratu baldin badu ere, herri afaria eta Gazteen Danborrada antolatzeaz gain, Gaztelekuaren autogestioari buruzko pegatina bat ere atera du. Amabirjinetan lan gehiago egitea ezinbestekoa iruditzen zaio asanbladari. «Amabirjinak herriko jaiak baldin badira ere, aspaldidanik norabidea zeharo galdua dute. Giro herrikoia berreskuratzen saiatu behar dugu guztion artean eta, bide batez, Gaztelekuari buruzko gure aldarrikapena zabaltzen. Dagoeneko hainbat ekitaldi antolatzea dugu buruan eta udan barrena garatuz joango dira horiek. Oraingoz, gazteon beharrentzako Gaztelekurik ezean, kalea bihurtuko dugu gazteleku eta bertan egingo ditugu ikastaro, erakusketa, ekitaldiak eta abar».

Honezaz gain, Gaztelekuarekiko ZAGAk aurkeztutako egitasmoarekin bat egin dute herriko taldeen eta herritarren atxikimenduak ere ezagutaraziko dira hurrengo asteetan. Oraingoz, Sanpelaio hauetan festarekin batera aldarrikapena lau haizetara zabaldu eta «Gaztelekuarekin benetan zer gertatzen ari den» jendeari azaltzea izango da ZAGAren lana. Gainera, txosnagunean Sorginak Emakume Asanbladarekin batera duten txosnan ere lan egin beharko dute. «Guri, berez, irailean tokatzen zaigu txosna jartzea. Sorginakoekin erdibana egingo dugu ordea», esan digute.

▸**LASARTE-ORIA**/SANPEDROAK'98

# Los taberneros quieren que salgamos de marcha

Aitor AZKONOBIETA

Los hosteleros del pueblo no están muy contentos últimamente. Los horarios de cierre no son lo que eran y el hecho de que los Sampedros sean entre semana, tampoco les beneficia en nada. Por ello, estas últimas semanas se han reunido para tratar estos asuntos.

Uno de los temas que más preocupa a los hosteleros es el de Sampedros. Las fiestas patronales son una muy buena fuente de ingresos y el hecho de que se celebren entre semana, «perjudicaría aún más nuestra situación, que no es muy boyante que se diga», aclaran los hosteleros. Desde el Ayuntamiento, tampoco se ha hecho nada al respecto y han sido los propios hosteleros quienes han elaborado un programa para hoy y mañana.

Este programa lo presentaron en el Ayuntamiento «con la intención de que nos ayudaran. Pero no han querido saber nada y la única respuesta por su parte ha sido la de ampliar los horarios de cierre hasta las 5 de la madrugada», afirman. Otra de las decisiones de Alcaldía ha sido la de no subvencionar las actividades del programa, «y por si fuera poco, nos obliga a encargarnos de la limpieza de la plaza Okendo y a buscarnos la vida en el tema de la electricidad para los conciertos».

El presupuesto de todas las actividades asciende a 1.500.000 pesetas. Para ello, los bares del centro están dispuestos a poner cada uno 25.000 pesetas. «De todas maneras, no cubrimos todos los gastos. Como pasa siempre, no hemos conseguido que todos los bares apoyen esta iniciativa, aunque la mayoría estemos metidos de lleno. Es de agradecer la ayuda recibida por algunos bares que no están en la zona centro», explican.

Hace tiempo que este sector vive momentos críticos y cuando han solicitado ayuda al Ayuntamiento siempre han recibido un no por respuesta. «Hace poco, coincidiendo con un importante día en el pueblo, pedimos que nos dejaran cerrar más tarde. Tampoco tomaron en cuenta esa decisión. Los días de Sampedros, por lo menos, tenemos horarios libres», se consuelan.

## Actos

En cuanto al programa elaborado, el viernes habrá una exhibición de artes marciales a las ocho de la tarde y a las once de la noche otra de disc-jockeys. Para el sábado han organizado un concurso de graffitis a las cinco de la tarde en Andatza Plaza y de seis a nueve actividades para niños, tales como magos, hinchables, música...

El plato fuerte llegará a la noche con el concierto de tres grupos musicales. Arakajun y Ke Putada darán paso a La Cabra Mecánica. Los madrileños presentarán su nuevo disco "Cuando me suenen las tripas".

### BEIZAMA

**Herri afaria gaur**

Sanpedro jaiei hasiera emanez, gaur 9etan herri afaria egingo da Iñaki Labaka abeslariarekin. Ondoren, Ainhoa, Maitane eta Eider trikitilariekin dantzaldia iragartzen da.

### ASTIGARRAGA

**Txistu Jardunaldiak**

Joakin Iruretagoienaren jaiotzaren mendeurrena ospatuz "Txistulari" aldizkaria aurkeztuko da gaur. Ekitaldia 8etan Udaletxean da.

### AZKOITIA

**Ongi etorria Kimetz eta Eneritzi**

Gaur 7etan Udaletxean Kimetz Larrañaga eta Eneritz Epelde Euskadiko dantzari txapelketako bikote irabazleari ongi etorria egingo zaie.

### AZPEITIA

**Mendi irteera**

Igandearko Lagun Onak M.B.k Bera-Hondarribia mendi ibilaldia antolatu du egun guztirako. Irteera plaza nagusitik izango da goizeko 8.30ean eta izena gaur eman behar da elkartean.

### GETARIA

**Diapositiba emanaldia**

Gaur gaueko 10.30ean Berdura Plazan Jose Ramon Agirre *Marron*en "K-2 Baltistan" izenburupean diapositibak eskainiko dira.

### ZUMAIA

**Bizikleta martxa**

Urola bailara garbi baten alde bizikleta martxa egingo da bihar 4etan irtenda: Azkoitia, Azpeitia, Zestoa eta Zumaia zeharkatuko dira. Azken herri honetatik bizikleta furgonetan eramatea nahi dutenek 1.30ean Kofradia Plazara hurbildu beharko dute.

Zuentzat eta guztiontzat...
Taberna
XIMUT
Bixkonde Kalea, 3 behea
20800 ZARAUTZ
Telf. 943-83 24 34

BIDAIAK HALCON VIAJES

Nos sumamos a su alegría en estas fiestas...
recordándoles que estamos como siempre, con el mejor servicio y atención para que Vd. disfrute de **la fiesta de...VIAJAR**

Jai hauetan zuen poza Geure egin nahi dugu...
Gogoratu beti bezala hemen gaude zuen zerbitzura, zuen **BIDAIA JAIRIK** onena izan dadin

ZARAUTZ: San Francisco, 9
Telf. (943) 83 29 53